

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Hiri- eta landa-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokion kontribuzio-errola. 2026ko ekitaldia. (Espedientea: 2026/157)

Arabako Foru Aldundiak Laudioko hiri- eta landa-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko udal Zergari dagokion kontribuzio-errola egin du 2026. ekitaldirako. Errola horretatik kanpo geratzen da subjektu pasiboaren edo hirugarrenen bizileku ez diren –ez errentamendu bidez, ez erabilera-lagapen bidez– bizitegi-erabilera higitzeko legokiekeen ehuneko 50eko errekarua.

Alkate-udalburuak, 2026ko martxoaren 26ko 0388 zenbakiko ebazpenaren bidez, errola hori jendaurrean jartzea onartu du hamabost (15) egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Interesa dutenek aipatutako zerga-espedita aztertu ahal izango dute Ekonomiko Azpiarloan bulegoetan (Errentak eta Ordainarazpenak), udaletxean (Herriko Plaza – Bigarren solairua), 9:00etatik 14:00etara. Halaber, beren eskubideen alde egokitzat jotzen dituzten argibideak, alegazioak eta/edo erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakustea esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko udal ordenantza fiskal orokorreko 2.1. atalean xedatutakoaren arabera.

Zergadunek berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dute alkate-udalburuaren ebazpen horren aurka hilabeteko (1) epean, iragarki hau jendaurrean jartzeko aldia amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Argibideak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze-errekurtsoak alkate-udalburuari aurkeztuko zaizkio, lehen aipatutako epeetan.

Borondatezko aldi biltzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2026ko irailaren 21 egunetik 2026ko azaroaren 23 egunera arte, biak barne.

Helbideratuak dauden ordainagiriak 2026ko urriaren 21ean kobratuko dira.

Zerga honen ordainketa helbideratua ez dutenek, ostera, bide hauek izango dituzte ordaintzeko:

1. Kutxabank, Laboral Kutxa eta Rural Kutxa banku erakundearen sukurtsaletan, horiek irekita dauden ordutegian, ordainagiria aurkeztuta.
2. Udal webguneko "Nire Ordainketa" ordainketa pasabidea erabilita.
3. Udaletxean, horretarako prestatutako bulego elektronikoan, banku-txartelaz.

Borondatezko aldi biltzeko epea amaitutakoan, ordaindu ez diren kuotak premia-mendu-prozeduran sartuko dira automatikoki, eta legez ezarritako errekaruak sortuko dira, eta, hala badagokio, berandutze-interesak eta sortutako kostuak.

Laudio, 2026ko martxoaren 26a

Alkate-udalburua
AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ